


ERABAKIAK  
JAUZIAK

GEROA GORRIRA EKARRI


2004 • IRUNEA



biltzar nagusia

# Ponentzia

Antolakuntza



Antolakuntza  
ponentzia

Ponencia  
organizativa

Texte d'orientation  
d'organisation

БЭТНУКБЛОТНА  
БЭТНЭНОҢ

БЭДНЭНОҢ  
БЭТЭХИГЭГНӨ

НОИДБЭТНЭИНОДЭТХЭТ  
НОИДЭХИГЭГНӨД

# Aurkibidea

# Antolakuntza ponentzia

Antolakuntza eredu  
partaidetza, eragargaritasuna eta berritasuna

## 1. Errota

- 1.1. Errota
- 1.2. Errota
- 1.3. Errota
- 1.4. Errota
- 1.5. Errota

## 2. Antolakuntza eredu eguneratu

- 2.1. Errota
- 2.2. Errota
- 2.3. Errota
- 2.4. Errota
- 2.5. Errota
- 2.6. Errota
- 2.7. Errota

# Aurkibidea

## Antolakuntza eredia: partaidetza, eragingarritasuna eta berriztapena

1. Balantzea.....	7
1.1. Atarikoa .....	7
1.2. Lurralde egitura .....	8
1.3. Sektore egitura .....	8
1.4. Zuzendaritza egitura.....	8
1.5. Arloak eta kabineteak.....	9
2. Antolakuntza eredia eguneratu .....	13
2.1. Gogoeta orokorrak .....	13
2.2. Lurralde egitura .....	17
2.3. Sektore egitura.....	22
2.4. Eredu sindikalaren zerbitzurako zuzendaritza .....	25
2.5. Idazkaritzak .....	30
2.6. Antolakuntza beste eremu batzuk .....	33
2.7. Batzorde bereziak .....	34

Antolakuntza ereduak  
pentsatzen, eragintzen eta berrikosten

1. Balantzeak	1.1. Antolakuntza
1.2. Lanburu-eremuak	1.3. Zerbitzu-eremuak
1.4. Inbentario-eremuak	1.5. Antolakuntza-eremuak
2. Antolakuntza-eremuak	2.1. Logika-eremuak
2.2. Lanburu-eremuak	2.3. Zerbitzu-eremuak
2.4. Inbentario-eremuak	2.5. Antolakuntza-eremuak
2.6. Antolakuntza-eremuak	2.7. Antolakuntza-eremuak

## 1. Balantzea

### 1.1. Atarikoak

(1) 5. Biltzar Nagusian onartu genuen antolakuntza eredua teorikoki zuzena zen apus-tua zen (lurralde eta sektore egitura integrala, bi egiturak nazio eta eskualde mailak uztartzeko eremuak, sektoreak sendotzea eta arloak egituretan indartzea...) sindika-tuaren hazkundeari eta geure buruari esku hartzeko jarritako ildoetara heldzeko, baina eredu horren garapenaren inguruko balantze orokorra ez da gogobetetzeko modukoa izan eta jarritako igurikapen eta helburuetatik urrun geratu da.

(2) Gure erakundeak Biltzar Nagusiaren osteko lehenengo bi urteetan bizi izandako egoerak eta hauteskunde sindikalen pilaketak ez digute antolakuntza plan borrokalari eta ikuspegidunik egiten utzi. Antolakuntzarako pentsatuta geneukan hobekuntzan eta lan metodoak egokitzen egindako ahalegina ez da nahikoa izan, eta egitura eta koadro sindikalen formazio sindikal eta ideologikoak muga handiak izan ditu, ez delako behar diren metodologia, definizio eta plangintza iraunkorrekin burutu.

(3) Era berean, ezker politiko eta sozialaren sektoreei eragiten dien antolakuntza behe-raldia esku hartze sindikal eta soziopolitiko ugariko fronteetan aritzen den LAB bezala-ko sindikatu batean ere igarri da. Horrek, afiliatuen eta delegatuen partaidetzarako bat ere ona ez den abagunearekin eta ezker abertzaleak bizi duen jazarpen politiko eta erasoen egoerarekin batera, bere eragina izan du sindikatuaren egiturak nahikoa gara ez daitezen.

(4) Ez dugu erakundearen oinarrietara partaidetza eta integrazio handiagoaren bila gerturatzeko, eta sail sindikalak gure eredu sindikala aktibatzeke faktore nagusi modu-  
ra indartzeko helbururik lortu. Horrek hausnarketa sakona eskatzen digu, eta egiturak eta beren lan mekanismoak erakundearen oinarrietara bidera ditzagun, sindikatuari lurralde zein sektore mailetan horizontalki hedatzen ere laguntzen ez dioten barruko zurruntasuna eta hierarkizaziorako joerak gaitutuko baditugu.

(5) Hala eta guztiz ere, afiliazioak eta ordezkaritzak Biltzar Nagusien arteko ziklo hone-tan izan duten bilakaerak balantze orokorrean ona erakusten digu, lurralde eta sekto-reen artean hainbat desoreka dauden arren. Sindikatuak 2004 urtea ia 35.000 afiliatu-rekin hasi du eta gure ordezkaritza sindikala, Euskal Herri osoan lehenengoz zabaltze-az gain, goraka jotzen segitzen du, 2600 lantoki baino gehixeagotan ia 4000 delegatu daukagularik.

“

”

## 1.2. Lurralde egitura

(6) LABek Ipar Euskal Herrian antolakuntzaren aldetik izandako garapenak eta sindikatu modura izandako esku hartzeak oso etapa garrantzitsua bete du. Ia zerotik abiatu ginen arren, sindikatuak antolakuntzaren erroak sendotu ditu eta Proud'hommeseko hauteskundeetan ordezkariak arrakasta lortu du. Azkeneko hilabeteetan, krisian dauden enpresen katearengatik eta jendartearen aurkako erreformen ondorioz nahikoa aktibo dabilen mugimendu sindikal frantsesarekin, LABek partaidetza aktiboa izan du mobilizazioetan, bere eremua garatu du eta Lapurdi, Baxenafarra eta Zuberoako langileriarentzat erreferentzia berri bihurtu da.

(7) Aurreko Biltzar Nagusian eskualde mailak sendotzeko egindako diseinua egokia zen, sektore, herri biltzar eta arloetako arduradunak bere baitan bilduko zituzten eskualde egiturak eratzeak aukera eskaintzen zuelako, eta erakundea bere esparruan politikoki eta sindikalki dinamizatzeko gai izan zedin egitura indartzea bultzatzen zuelako. Herrialde egiturak desagertzeak eta eskualde maila garatzeak objektiboki erakundeko oinarriak zuzendatzen gerturatzea ahalbidetzen zuen arren, eskualde egiturak erakundearen oinarriantza, herri biltzarren eta sektorearen bidez, bilakaera eskasa izan duenez, antolakuntzako apustuaren eragingarritasuna baldintzatu du.

(8) Lurralde egituraren bilakaeran eskualde egituraren zenbakizko garapenaren eta bere esparruan antolatutako lan bati eragingarritasunez ekiteko ahalmenaren arteko desoreka ikusten dugu. Zenbakizko garapenak, sindikatuak baliabide gehiago jarrita, ez du, ordea, eskualde egituren gaitasun eta heldutasuna areagotzerik ekarri, egitura horiek, nazio mailako ekimenetan parte hartzetik urrun, soslai soziopolitikorik ez dutela agerian utzi dute eta arazo sindikalei erantzuteko defentsa dinamikara mugatu dira.

(9) Eskualde egiturak bere eginkizun sindikal eta soziopolitikoetan eta lanerako eta plangintzarako bere ahalmenean hain gutxi garatu izanak herri biltzarrek eta sail sindikalekiko komunikazio iraunkorra indartzea baldintzatu du. Eskualde askotan eragiketarako bitartekoa delegatuen biltzarra da baina, gauza batzuetarako eragingarria izan arren, ez da nahikoa egitura garatzeko eta erakundean benetako partaidetza izateko. Gainera, esan behar da ez dela delegatu sindikalak herri biltzarri eta eskualde egiturari begira duen eginkizuna landu.

(10) Eskualdeko jarduera Eskualdeko Idazkaritzetan eta sektore honetan edo bestean izan litezkeen liberatu edo erdi-liberatuengan pilatzeak benetan egitura modura funtzionatzea oztopatzen du, eta ondore txarrak sortzen ditu herri biltzar eta sail sindikaletan eman behar diren eztabaida, ekarpen eta ekimenei dagokienez. Horrek erakundea hierarkizatzeko joera dakar, eta ez du antolakuntzako eremu horizontalak finkatzen lagatzen.

(11) Jabetu behar dugu egoera hau guztia goitik behera aldatzen ez badugu bultzatu nahi dugun pertsonen berriztapenak ez duela jakintzaren eta eskarmentuaren transmisioa militantzia berriaren energia eta indarrarekin konbinatzeko ingurune aproposik aurkituko.

### 1.3. Sektore egitura

(12) 5. Biltzar Nagusian sektore mailako antolakuntzan planteatutako jauzi handiak, erakundearen esku hartze eta dimentsio beharrei erantzun nahi zienak, emaitza kontraesanezkoak ekarri ditu. Zenbait kasutan "sektore erraldoitasunak" eta, oro har, lurralde egiturekiko harreman urriak baldintzatu du.

(13) Industria eta zerbitzuen esparruan sektore garapenaren bultzada, horixe baitzen berrietasunik garrantzitsuena, ez du sail sindikalen ekintza sindikal eta soziopolitikoaren dinamizazioan isla erabakigarriarik izan. Pertsona baliabideak azpisektoreetako berariazko arduretan sakabanatzea eta sindikatuak eskualde esparruetan dituen erronketan gutxi sartzea oraingo Biltzar Nagusian zuzendu beharko dugun joera izan da.

(14) Sektore egiturak ez du modu naturaletan bere jardueran guztietan egitura integral bihurtzerik lortzen. Lurralde egitura egitura "politiko" modura ikustera eta sektore egitura ekintza sindikalerako soilik erabiltzera jotzen da, eta ezaugarri integral horiek Nazio Komitean eztabaida, gogoeta edo balantzeren bat planteatzen denean baino ez dira ageri. Defizit hori antolakuntza eredu osoan dago.

(15) Gure erakunde soziopolitiko izaerarekin bat datorren ekintza sindikalaren ildoko esku hartzearen plangintza egiteko ditugun zailtasunak argi eta garbi ikusi dira sektore egituraren. Sektore politiken inguruan gogoeta eta proposamenak egiteko gaitasuna, izaera soziopolitiko horretan gai erabakitzailea, ez da ondo garatu, ez barruko mailan ez eta, oro har, lan mundura eta jendartera begirako gure esku hartzean ere.


### 1.4. Zuzendaritza egitura

(16) Lurralde zein sektore mailetan dauden disfunczio eta kontraesanezko emaitzak gorabehera, 5. biltzarrean jarri genuen zuzendaritza egituren eredu egokia zen, erakundeak ondo funtzionatzeko.

(17) Nazio Biltzarra zuzendaritza erakunde modura biziberritzen ari da, bai aldioroko izaerari bai edukiei dagokienez, eta balio handiagoa hartu du azkeneko Biltzar Nagusitik hona. Hala ere, erakunde hori bere kideen protagonismoaren eta ekarpenaren bidez aberastuko duten lan metodologiak aplikatu behar dira.

(18) Nazio Komiteak neurri eta osaketa egokiak izan ditu, halako esparruetan esperientziarik gabeko militante asko dituen egitura berriaren zailtasunak ageri dituen arren. Dena dela, Nazio Komiteak etorkizunean, sindikatuaren zuzendaritzaren benetako buru modura, bai gogoeta mailan bai eztabaida eta erabaki mailan, erreferentzialtasun handiagoa izan dezan baldintzak sortu dira.

(19) Komite Exekutiboak modu egokian administratu ditu testuinguru politiko eta sindikalen hariko sindikatuaren erabaki garrantzitsuak, baina gabeziak erakutsi ditu gure ekintza sindikalak eta gure antolakuntza ereduak behar dituen birmoldaketan aitzindari eta bultzatzaile izateko garaian. Horren ildotik, esan behar dugu Komite Exekutiboan finkatutako lan dinamika ez direla LABek Euskal Herriko prozesu politikoaren fase honetan behar duen dinamizazio sindikal eta sozio-ekonomikoa garatzeko egokiak izan.



## 1.5. Arloak eta kabinetek

(20) LAB-gazteak eta LAB-emakumeak, bi arloek, bakoitzak bere esparruan, eta bere jardura helburuekin, beren garapenaren fase bat osatu dute eta, orain, nola ezaugarrituko diren eta gerorako zer bilakaera izango duten gogoeta egin behar da.

(21) Azkeneko Biltzar Nagusitik hona "LAB-gazteak" arloaren bilakaera lan merkatuan izandako aldaketen eraginpean dago, langabezia ikaragarri gutxitu eta enpresetan gero eta gazte gehiago baitago. Beren dinamika eta esku hartze propioak dituzten gazteen taldeak osatzeko fasearen ostean, "LAB gazteak" gure erakundean enpresetara sartzen diren gazte horien kezken gai nagusi den prekariotasunaren aurkako borroka indartzeko barruko ziri izatera igaro da.

(22) Bilakaera horrek, eta sindikatuan gazten afiliazioak gora egin izanak, horietako asko delegatu hautatu dituztelarik, gainera, gazteria gure antolakuntzan beste modu batera txertatzera eta aktibatzea behartzen gaituzte. Etorkizunera begira ez dauka zentzurik esparru itxitan antola daitezen, eta giltzarria erakundearen egituretan eta lanean dinamikoki lan egin dezaten da.

(23) Ezker abertzaleko beste gazte erakunde batzuekin hitzartutako plan estrategikoa lan erkidearen erreferentzia bat da, eta ezker abertzalearen baitan erakundeen arteko joan-etorriak berez indar daitezen bitarteko garrantzitsua izan behar du.

(24) LAB Emakumeak arloak, zailtasunak zailtasun, eta baliabidez urri ibili arren, bilakaera ona eta protagonismo garrantzitsua izan ditu sindikatuaren jardueran. Aukera Berdintasunen Plana abian jartzea funtsezko ekarpena izan da genero bereizkeriaren aurkako borrokan eta nolabaiteko aitzindariatza bereganatu du euskal sindikalismoaren mugimendu osoan.

(25) Plana erakundearen egituretan garatzeak LAB Emakumeak arloaren bilakaera zehatzuz joango da, eta garbi dago arlo horri eutsi eta berariazko lan eta koordinaketa eremu modura indartzeko oraingo beharrari eutsi behar zaiela, plan hori era egokian aplikatuko bada.

(26) Lan Osasuneko Kabinetearen garapena garrantzitsua izan da militantziak gai horretan duen proposamen eta aktibazio ahalmenari dagokionez. Erakundearen egitura teknikoak bilakaera positiboa izan du, eta gure ekintza sindikalean ikusten diren mugak txosten politiko-sindikalean egindako gogoeta autokritikoei lotuta daude.

(27) EUSLAB egitasmoaren etapa desberdinak oro har balantze onez betetzen ari dira. Sindikatuak euskararen normalizazioan sakontzen jarraitzen du, bai egituretan bai barruko funtzionamenduan, SINEUS planaren bidez eta, lan esparrua euskalduntzeari dagokionez, LANEUS planarekin, gure sindikatua aitzindari bihurtu da, beste erakunde sindikal batzuen jarreretan ere eraginez.

(28) Langile autonomoak, erretiratuak eta pentsiodunak LABen antolatzea oraindik eginkizun daukagun lana da, Biltzar Nagusi honetan behar diren ardurak definituz eta hurrenez hurren dagozkien lan planak abian jarritz.



(29) Sindikatuaren ekonomia sozialaren esparruko hedapenaren inguruko balantzea, bai alde ideologikotik bai antolakuntza eta esku hartzearen aldetik, benetan txarra da, berriro ere. Arlo honek Euskal Herriaren ekonomian garrantzi handia duen eta kooperatiba-enpre-setan ezker abertzaleko pertsona ugari dauden arren, ez gara berariazko gogoetatik eta antolatu eta esku hartzeko eredurik eskaintzeko gai.

(30) Ipar Hegoa Fundazioaren osaketa eta garapena nortasun eta plangintza krisia jasaten ari dira, antolaketa eredu berrian birbideratu beharko duguna. Erakundeko maila desberdinetako koadro guztien prestakuntza ideologiko etengabea funtsezkoa da eginkizunak eta esku hartzeko lerroak zuzen garatzeko.

(31) Sindikatuaren kudeaketa ekonomikoak bilakaera ona izan du, eta erakundeak dituen diru sarrera eta gastuen bolumen handiaren kontrolerako eta plangintzarako bermea da hori. Gainera, kudeaketa ekonomiko horren eragingarritasunean urrats berriak egiteko moduan gaude.

(32) Orain gure funtzionamenduan teknologia berriak erabiltzen ditugunez, gutxiegi erabili izan dituguneko etapak estaliz, garai horiek gaintutuz joango gara, arian-arian.

(33) Hala afiliazio politikan nola ordezkaritza mailan, "tiraka" funtzionatu dugu, plangintza zehatzik gabe. Eskualde mailan hedatzeko ardurak finkatu gabe egoteari, datuak zuzen kudeatzeko sortutako arazoak eta helburu eta ekinaldi berariazkorik ez izatea gehitu behar dizkiogu.





## 2. Antolakuntza eredu eguneratu

### 2.1. Gogoeta orokorrak

#### 2.1.1. Hitzaurrea

(34) LABen antolakuntza eredu bultzatu nahi dugun ezaugarritze eta eredu sindikalari barru barrutik lotuta dago. Horren haritik, aurka jo eta borrokatzeko sindikalismoak, aldaketa politiko eta sozialaren prozesuaren barru dagoenak, militantzian dauka bere aktiborik handiena, langileengan eraginik izateko. Militante horiengan eta afiliatuengan geure buruari jartzen dizkiogun helburuen inguruan sentipen kolektiboa piztea da gure egitasmoaren garapenaren bermerik onena.

(35) Militante eta afiliatuak parte har dezaten laguntzeko, sindikatuaren ardura eta egitura desberdinak eskema hierarkiko eta burokratikoetatik urrun eta, aldi berean, komunikazioaren eta gure oinarri sozialarekiko lanaren garrantziaz ziur egongo dira, partaidetza handiagoa lortzeko eta partaidetza aktibatzeke ezinbestekoak direla sinistuta. Afiliazioarekiko komunikazioa, sail sindikalen aktibazioa eta egituren garapen horizontala helburu nagusi modura hartuko dituzte sindikatuaren arduraren bat daukaten pertsona guztiek.

(36) Enpresetako eguneroko esku hartzean borrokalaria eta bere proposamen eta ekintzetan erreferentea den sindikalismoa garatzeko lana modu eragingarrian planifikatu eta antolatu behar da, boluntarismoko eta kanpainak egin eta egitearen dinamiken gainetik.


(37) 6. Biltzar Nagusiak sindikatu bere egitura guztietan berritzeko prozesuan urrats garrantzitsua izan behar du, baina kontuan izanik, beti, sindikatuaren organigramak (lurralde, sektore, arlo... egiturak) ezin duela funtsezko premisa bat baldintzatu: LAB sindikatu konfederala dela, alegia.

#### 2.1.2. Militantzia sindikatuaren

(38) LAB koadro eta masa erakundea da, bere proiektua garatzeko aktiborik garrantzitsuen pertsonengan duena. LABeko gizon eta emakumeok militantzian sindikatu proiektu honetik gure nortasun ikurra daukagu. Horregatik, sindikatuaren bilakaera sortuz joan den beharriaz ez dute aldarazi lan eta jokamoldezko gure estilo propioa ematen digun oinarriko kontzepzio hori, ez eta inoiz aldarazi behar ere.

(39) LABen militantziak erreferente izan behar du langileriaren eta jendartearen aurrean, ezker abertzalearen jardura politikoetan konpromisoak hartuz, eta dinamika eta errebindikazio sozialetan elkartzunez parte hartuz.

(40) Arduren definizioak ez du militantziak erakundearen barruan egin beharreko ekarpena eta jardura zatikatu behar. LABeko militante gara erronka soziopolitiko eta sindikalei oro har aurre egiteko, bakoitzak beren beregiko eginkizunak izan arren. Kezkak eta ekarpenak ardura zehatzaren arabera zatikatzeko joera gainditu behar dugu.



(41) Sindikatuko liberatu guztiak egiturek finkatutako beharrian eta erronken arabera hartzen dituzten erabakien mende dauden militanteak dira. Horren haritik, gure erakundearen bolumenak eskatzen digun liberatu kopuru handiarengatik barruko arautegi bat jarri behar izan dugu, liberatuen eskubide eta betebeharren eta sindikatuarekiko harremanen alderdi zehatzak araupetzeko.

### 2.1.3. Lurralde eta sektore egitura

(42) Sindikatuak bi egitura dauka (lurralde eta sektore mailakoak), zatikatze paraleloa saihesteko berrelikatu behar direnak. Funtsezko planteamendu honetatik, lurralde egitura sindikatuaren interbentzio osoaren tratamendu eta garapenaren esparru nagusia da.

(43) Sektore egituraren helburua ekintza sindikala, negoziazio kolektiboa, sektore politika dinamizatzea eta sindikatua esparru horretan hedatzea ditu helburu. Sektoreak erakundearen osotasunerako bere ekarpena bi esparrutatik garatzen du: batetik, sektoreko Komite Exekutiboak sindikatuaren zuzendaritzan parte hartzen du, Nazio Komitean sektoreko idazkaria egon ohi baita, bere ekarpenak egiteko, eta bestetik, eskualdeetako sektore arduradunak Eskualdeetako Idazkaritzetan daude.

(44) Lurralde-sektore horizontaltasuna informazioa jaso eta erakunde osoan aurrera eta atzera dabilzan eztabaida eta ekarpenak izaten direneko bi esparrutan islatzen da: Nazio Komitean (lurralde eta sektore mailetako idazkariak), eta Eskualdeko Idazkaritzan (herri biltzarrek eta sektoreetako arduradunak).

(45) Gure antolakuntza ereduaren lehentasuna Eskualdeko Idazkaritzaren funtzionamendua eta plangintzarako bere ahalmena egonkortzea da. Eskualdeetako sektoreetako arduradunak eta herri biltzarretako arduradunak bertan finkatzeak sail sindikalekiko komunikazio etengabeari bultzada ematen eta enpresa eta jendartera begira borroka sindikalismoa aktibatzen lagundu behar digu.

(46) Sektoreko Nazio Biltzarrek antolaketa eta esku hartze sindikal eta sozio-ekonomikoaren mailetan Biltzar Nagusian definitzen diren ildoak jorratuko dituzte.

(47) Dagokien egiturekin kontrastatu ondoren, lurralde eta sektore Idazkari guztiak, aldi berean Nazio Komiteko kide ere badirenak, Biltzar Nagusian hautatuko dira.


### 2.1.4. Idazkaritzak

(48) Sindikatuak nazio izaerako idazkaritzak izango ditu, gure jarduera sindikal eta soziopolitikoan zeharkako gai edo eginkizunei erantzuteko: nazioarteko harremanak, finantzak, formazioa, gai juridikoak, gai ekonomikoak, emakumeak, gazteria, lan osasuna, hizkuntza normalizazioa, inmigrazioa eta pentsiodunak.

(49) Gizon eta emakumeak gure erakundean, lan munduan eta, oro har, jendartean berdinak izan daitezen borrokak, baita sistema sozio-ekonomikoak euskal gazteria lagatzen duen egoera larriaren aurrean sindikatuaren esku hartzeak ere, errebindikazio horiek lurralde eta sektore egituretan zeharkako izaera eta proiektzioa izan dezaten dakar.

(50) Aukera Berdintasunen Planean definitutako helburuen arabera, "LAB Emakumeak" ek nazio idazkaritza eta lurralde eta sektore esparru bakoitzean antolakuntzan proiektzioa izaten jarraituko du.

(51) "LAB Gazteak" ek, halaber, nazio idazkaritza izaten jarraituko du, baina sindikatuaren egituretan antolaketaren aldetik berariaz garatzeko helbururik gabe. Hori bai, nazio idazkaritzak lan mekanismo eta ekimenak bultzatuko ditu militante gazteekin barru eta kanporako beren ekarpena sustatzeko. Gazteek LABeko militante modura izan behar dute eragina beren inguruan, ez "LABeko gazte" modura.



### **2.1.5. Formazioa eta eragingarritasuna militantziaren lanean**

(52) Formazio ideologiko eta sindikala erakundearen esparru guztietara heldu behar da, lan etengabearen eta koadroen eskolaren oinarriak sendotuko dituen metodologia eragingarriaren bidez. Horretarako, sindikatuak Formazio Plan bat prestatu behar du, ahalik eta lasterren, eta Ipar Hegoa Fundazioa berraktibatu behar du.

(53) Ezinbestekoa da Formazio Planean kalitatezko barru komunikaziorako sistema sartzea, gaien tratamendua eta formazioko material eta euskarriak erakunde osoan dinamikoki zirkulatzea errazteko. Era berean, Formazio Plana sindikatu osoan garatzea ardura konfederal desberdinen bultzada eta lankidetzara eskatzen duen lana da.

(54) Etengabeko gogoetazko egitura moldatu behar dugu, proposamen berriak eta sindikatu barrurantz zein kanporantz pentsamendu eta eztabaida bideak emango dituen nolabaiteko "ideien iturria". Gai honetan Ipar Hegoa Fundazioak eginkizun garrantzitsua bete behar du, eta horregatik da hain premiazkoa eta beharrezkoa berraktibatu eta bultzada berria eman diezaiogun.

### **2.1.6. Hizkuntz normalkuntza sindikatuan**


(55) Euskalduntzeko barruko prozesua sindikatuan datozen lau urteotan jorratzen jarraitu behar dugun oso erronka garrantzitsua da. Lanean izan dugun boluntarismoa gainditu eta LABen konpromisoa modu antolatuan garatzea lortu behar dugu. Horren ildotik, sindikatuak, 6. Biltzar Nagusia baino lehen, Biltzar Nagusi batetik bestera bitarteko Euskalduntze Plana definitu behar du.

(56) Sindikatuaren egiturek aktiboki parte hartu behar dute sindikatua eta esparru soziolaborala euskalduntzeko prozesuan eta, horretarako, euskalduntzea beren lan planetan etengabe txertatu behar dute.

### **2.1.7.- Lanaren antolaketa eta lanerako metodoak**

(57) Lanaren antolaketa oinarritzkoa da borroka ekintza sindikala eta eragingarria, langileriari ukitzen dioten arazoei aktiboki eta zuzenean erantzuteko gai dena bultzatzeko.

(58) Etorkizunera eta erantzun beharreko gai sindikal eta soziopolitikoaren sorta zabalari begira dauzkagun erronka ugariak, gure lan sindikala sumatu, planifikatu, garatu eta ebaluatzeko ahalmen handiaz jabetzera behartzen gaitu.



(59) Antolatu eta planifikatzea ez da nahikoa, horrez gain, planak modu eraginkorrean garatzeko lan metodo egokiak ere aztertu eta definitu behar dira, gure ahalmenak ahalik eta gehien aprobeztatuz eta neurritik beherako erabilpenak eta disfuntzioak saihestuz. Metodo horiek, aldi berean, lana objektiboki ebaluatzeko aukera kontuan izan behar dute, akatsak etengabe zuzenduz joan eta gero eta emaitza hobekak lortu ahal izateko.

(60) Horren ildotik, funtsezkoa da militantzia, eta bereziki liberatuak, beren lan denbora eta militantzia metodorik eragingarrienen bidez antolatzeko eta garatzeko behar diren irizpideez eta gaitasunaz jabe daitezen.

(61) Atal honen barruan sindikatuaren egitura guztien artean komunikazio iraunkorra, etengabea behar dugula ohartu behar dugu, zuzendaritzatik sail sindikaletaraino, informazioa eta formazioa bermatzeko, gai sindikal eta sozialen zein gai politiko eta ekonomikoen gainean, hori guztia funtsezkoa baita gure militantziak borroka ideologikoa garatu ahal izan dezan.

(62) Baliabide teknikoak oso garrantzitsuak dira arestian esandako horri guztiari heltzeko, eta sindikatuak une hauetan nahikoa baliabide tekniko dituen arren, etorkizunera begira bitarteko horiek berriztatu eta etekinez erabiltzea erronka modura hartu behar dugu, baita teknologia berrietan etengabe birziklatzea ere.

## 2.2. Lurralde egitura

### 2.2.1. Gogoeta orokorrak

(63) Lurralde egiturak sindikatuak bultzatzen dituen dinamika guztiak, sindikal zein politikoak bere baitara sartu behar ditu. Beraz, eztabaida eta ekarpenerako esparru konfederala da.

(64) Nazio mailako lurralde egiturek (Komite Exekutiboa eta Nazio Komitea), eta eskualde mailakoak (Eskualdeko Idazkaritza), eredu sindikal borrokalaria, esku hartze soziopolitiko egokia eta antolakuntzazko garapena indartzearen ildotik, gure gizarte oinarriak sindikatuaren bizitzan etengabe eta aktiboki parte har dezan bultzatuko duten osaketa eta eginkizunen definizioa bermatu behar dute.

### 2.2.2. Eskualdeko Afiliatuen Batzarra

(65) Eskualde bakoitzeko afiliatuek osatuko dituzte.

#### (66) Eginkizunak



- Biltzar Nagusiko eta zuzendaritzako erakundeen ebazpenak beren esparruetan bete daitezzen arduratuko dira.
- Bakoitzak bere eskualdeko urteko lanen plangintzak ebaluatu eta onetsiko ditu.
- Eskualdeari ukitzen dioten gaiak eztabaidatu eta Eskualdeko Idazkaritzari gogoetak eta proposamenak egingo dizkiote.
- Eskualdearen ordezkariak hautatuko dituzte, Biltzar Nagusirako.
- Nazio Biltzarrerako eskualdeko ordezkari titular eta ordezkoak hautatuko dituzte.

### 2.2.3. Eskualdeko Idazkaritza

(67) Eskualdeko Idazkaritza indartzea da Biltzar Nagusi honetako erronkarik handienetako bat, sendotzea funtsezkoa baita antolakuntza eredu osoa finkatzeko. Erreferente politiko eta sindikal sendoa izan behar du, esku hartzeko orduan plangintzarako gaitasun handikoa, eskualdea lurralde maila sektoreetako ardurekin uztartuz antolatze modura osatuta.

#### (68) Eginkizunak:

- Nazio mailan planteatutako lan jarraibide eta dinamikak bere esparruan garatuko ditu.
- Eskualdean ordezkari eta elkarriketa sozial, politiko eta instituzional ahalmena izango ditu.
- Proposamenak egin eta lan planak definituko ditu, bere jarduera esparruaren errealitate soziorabial, ekonomiko eta politikoari adituz.
- Planteatutako lan dinamikei jarraipena egin eta kontrolatuko ditu.
- Barruko formazio plana eta estrategia prestatuko ditu.
- Sektoreko ordezkarien bitartez, ekintza sindikal osoaren nolabaiteko kontrol eta jarraipen kolektiboak mantenduko ditu.
- Eskualde Kontseilua dinamizatuko du.
- Herri biltzarrak bultzatu eta dinamizatuko ditu, sail sindikalekiko komunikazioa, eta zeharkako ekintza sindikaleko politikak, baita aukera berdintasuneko plana eta euskalduntze planak ere.
- Egoitzetako lana, ekintza sindikal, aholkularitza... antolatuko ditu egoitzetan.
- Sindikatuaren afiliazioa eta ordezkari bultzatuko ditu.



(69) **Osaketa:**

- Eskualdeko Idazkaria
- Sektoreko arduradunak eskualdean
- Lege aholkularitzako arduraduna
- Herri biltzarren arduraduna
- Sindikatuaren hedapenaren arduraduna

(70) Oinarrizko osaketa honek gorabeherak izan ditzake antolakuntzaren bilakaera zenbaterainokoa den arabera, zeren gerta baitaiteke eskualderen batean ezarritako sektore horiek guztiak egoteak zentzurik ez izatea. Gainera, Biltzar Nagusi batetik bestera bitarteko epean, Eskualdeko Idazkaritzak bere egitura honakoekin sendotuz joan beharko du:

- Aukera Berdintasuneko Planaren Arduraduna
- Lan Osasuneko eta Ingurumeneko Arduraduna
- Komunikazio Arduraduna
- Hizkuntz normalkuntzaren arduraduna

(71) Lurralde idazkaritza tekniko-ekonomikoetako arduradunak beren militantzia kokatu ohi den Eskualdeko Idazkaritzako kide izango dira.

(72) Bilbo, Donostialdea, Iruñaldea eta Gasteiz-Errioxa Eskualdeetako Idazkariak herrialde mailako ordezkaritza soziopolitikoko eta erakunde-zko harremanen ardurak beren gain hartuko dituzte. Era berean, Ipar Euskal Herriko Idazkariak Ipar Euskal Herriko hiru herrialde-etako ardura horiek hartuko ditu bere gain.

#### 2.2.4. Eskualdeko Kontseilua

(73) Eztabaida eta hausnarketarako egitura da, Eskualdeko Idazkaritzan definitutako lan planak eraginkorrak izateko garrantzi berezia duena. Hilean behin elkartuko dira eta bilerak Eskualdeko Idazkaritzak dinamizatuko ditu.

(74) **Eginkizunak:**

- Eskualdeko Idazkaritza bere esparruan definitzen dituen lan eta esku hartzeko planen jakitun egon eta plan horien kudeaketan parte hartuko du.
- Erakundearen barruko bizitzaren eta erabakien jakitun egongo da.
- Eztabaidak garatu eta ekarpenak Eskualdeko Idazkariarengana bideratuko ditu.

(75) **Osaketa:**

- Eskualdeko Idazkaritza
- Sektoreko eskualdeko komiteak
- Eskualde mailakoak ez diren ardurak dituzten liberatuak
- Herri biltzarren egitura egonkorrak

#### 2.2.5. Sindikatuaren eskualde egituraketa

(76) Lurralde egitura 17 eskualdetan antolatuko da:

- Ipar Euskal Herria
- Donostia-Hernani
- Oarso-Bidasoa
- Tolosa-Goierrri

- Kosta-Urola
- Debaldea
- Bilbo
- Eskumaldea
- Ezkerraldea
- Durangaldea
- Busturialdea-Lea
- Hego Uribe-Arratia
- Gasteiz-Errioxa
- Aiara
- Iruñaldea-Pirineoak
- Sakana-Larraun
- Erribera-Erdialdea

### 2.2.6. Herri biltzarra

(77) Herri biltzar bat badago sindikatuaren herri edo eremu bateko enpresetako presentzia herri mailako jendarte osora hedatzen dela ulertuko da eta, produkzio ehundura, osaga soziala eta lan egoera ezagututa, bere eginkizunik funtsezkoa sindikatua esparru horretan hedatzea izango da.

(78) Herri biltzarrak proposamen sozio-ekonomiko eta soziopolitikoak beren esparruetan proiektatu behar dituzte, LAB erreferentzia sozial bihurtuz, aldaketa politiko eta sozialarekin berez lotuta dagoen proiektua dela adieraziz.

(79) LABen antolakuntza ereduaren ezaugarriek, sarritan, herri biltzarra tokian tokiko egitura hutsa barik, eskualdeko egitura dela pentsarazten digute. Sindikatuak herri biltzarrak definitu eta indartzeko plan zehatza jorratu behar du.

Eskualdea	Herri biltzarrak
Ipar Euskal Herria	Baiona, Zuberoa
Donostia-Hernani	Donostia, Hernani, Lasarte-Usurbil
Oarso-Bidasoa	Irun, Orereta-Pasaia, Oiartzun
Tolosa-Goierri	Tolosa, Beasain-Ordizia, Legazpia
Kosta-Urola	Zarautz, Azpeitia
Debaldea	Eibar, Elgoibar, Arrasate, Bergara, Oinati
Bilbo	Bilbo
Eskumaldea	Erandio, Sondika, Mungia
Ezkerraldea	Barakaldo, Santurtzi, Zalla
Durangaldea	Durango, Zornotza, Elorrio, Ermua
Busturialdea Lea	Gernika, Ondarroa, Lekeitio, Bermeo
Hego Uribe-Arratia	Basauri, Galdakao, Igorre
Gasteiz-Errioxa	Gasteiz, Agurain, Oion
Aiara	Laudio, Amurrio, Orduña
Iruñaldea- Pirineoak	Iruñea, Elizondo, Bera-Lesaka, Atarrabia, Zangoza
Sakana-Larraun	Altsasu-Etxarri, Irurtzun, Leitza
Erribera-Erdialdea	Lizarra, Tafalla, Tuter, Biana

**(80) Eginkizunak:**

- Bere esparruko enpresekin eta afiliatuekin etengabeko komunikazioa izango du.
- Sindikatua eta sindikatuaren esku hartzea enpresa txikira hurbiltzeko plana prestatuko du.
- Dinamika konfederalak bultzatuko ditu.
- Bere esparruko arazo sozio-ekonomikoak aztertuko ditu, horren inguruko toki mailako erakundeen politiken jarraipena garatuz.
- Bere esparruko mugimendu sozialekin harremanetan egon eta elkarlanean arituko da.

**(81) Osaketa:**

- Herri biltzarraren arduraduna
- Herri edo eskualdeko sail sindikalik garrantzitsuenen ordezkariak
- Sindikatuaren hedapenaren arduraduna

(82) Herri biltzarraren egitura beti zabalik egongo da, edozein afiliatuk parte hartu ahal izan dezan.

**2.2.7. Sail sindikalak**

(83) Sail sindikalak erakundearen oinarritzko egitura dira, eta sindikatuaren lan, pent-samolde eta esku hartze ildoak jorratu behar dituzte lantoki bakoitzean. Afiliatuek nor-tasun ezaugarri orokorrak eta, aldi berean, sektore zein lantoki bakoitzaren berezita-sunen arabera lan ildo edo lehentasun desberdinak dituen proiektu bateko partaide sentitu behar dute.

(84) Sail sindikal bakoitzak lan mekanika finkatua izan behar du, lantoki bakoitzeko afilia-tuentzat erreferente dena. Horretarako, sail sindikal bat dinamizatzeko afiliazioarekin eten-gabe komunikatuta egoteko bitartekoak behar ditu, afiliatuek oinarritzko antolaketa esparru honetan aktiboki parte har dezaten lortzeko. Eskuordetzearen ohiturari itzuri egin behar zaio, informazio eta borroka ideologikoko lan etengabearen bidez.

(85) Horren haritik, sail sindikal bakoitzak enpresaren barruko gaiez edo gure erakunde osoaren berriazko kontuen informazio eta eragintza lan etengabe horretaz arduratuko den pertsona bat edukiko du.

**2.2.8. Sektore egitura eskualdeetan**

(86) Biltzar Nagusi honetan planteatzen dugun eskualde egituraren ereduarentzat sek-toreko eskualde arduradunengan dauka funtsezko oinarrietako bat. Sektoreko eskual-de arduradun horiek, sektorea eskualdean dinamizatzeaz gain (ekintza sindikala, negoziazio kolektiboa, hauteskundeak...), Eskualdeko Idazkaritzan sindikatuaren bizitzaren eta esku hartze konfederalaren planetan parte hartzen dute, eta funtsezko eginkizuna daukate ekintza sindikala eta esku hartze soziopolitikoaren antolatu eta dina-mizatzeko orduan.

(87) Sektoreko eskualde arduradunak, aldi berean, sektoreko nazio egitura batean ere badaude, non sindikatuaren esku hartzea eta sektore politikak definitu eta ebaluatu behar dituen. Horren ildotik, eskualdeko sail sindikalekin komunikazio sare eta lan egi-tura egonkorrak sortu beharko dituzte, sail sindikalak indartu eta dinamizatzeko.



## 2.3. Sektore egitura

### 2.3.1. Gogoeta orokorrak

(90) Sektore bakoitzak bere esparruan gai sindikal eta sozio-ekonomikoetan esku hartzeko eta sindikalismo dinamiko eta borrokalaria bultzatzea dezaten lan planak garatzeko bere egitura antolatuko du.

(91) Sektoreko zuzendaritza -Sektoreko Exekutiboa- nazio dinamikan eta gainerako egituraren sartuta egongo da, garatuko den ekintza sindikal eta sozio-ekonomikoa definitzen.

(92) Sindikatuaren jarduera orokorra lurraldeko egiturak bideratzen duen arren, sektoreko egiturak Nazio Komitean eta Eskualdeetako Idazkaritzetan egonez jarduera hori garatzen laguntzen du.

(93) Ekintza sindikala garatzeko defini litezkeen azpisektoreetako ardurak, batzuetan abagunekoak, osozko izaera izango dute eskualde egituraren barruan.

### 2.3.2. Sektoreen berrantolaketa

(94) Bultzatu nahi dugun antolakuntza ereduak, sektorea lurralde egituraren sartuago dagoela, sektore guztiak Eskualdeko Idazkaritza desberdinetan egon daitezzen bermatzeko, sektoreak berrantolatzea eskatzen digu. Hona hemen gure proposamena:

- Metalgintza
- Eraikuntza, Kimikak eta halakoak
- Zerbitzuak
- Administrazioak eta Osasun Arloa
- Irakaskuntza
- Garraioak eta Itsasoa

(95) Berrantolaketa honek sektoreko egituraren eta lurraldeko egituraren arteko harreman egokiagoa izateko eta sindikatuaren organigraman giza baliabideak birmoldatzeko aukera ematen digu. Horrekin batera, zenbait sektoretako lan eskemak eta baliabideen politikak berregokitu beharko ditugu.

### 2.3.3. Sektoreko Nazio Biltzarra

(96) Sektoreko erakunde gorena da, eta Biltzar Nagusia amaitu eta berehala eratuko da, lurralde eta sektoreetako organigrama osoa abian jartzeko.

#### (97) Eginkizunak

- Sektoreko Komite Exekutiboa eta Sektoreko Nazio Komitea nola osatuko diren zehaztuko du.
- Nazio Biltzar konfederalean sektoreko zein kide egongo diren hautatuko du.
- Azpisektoreetako arduradunak hautatuko ditu.
- Sektoreko eskualdeko arduradunak izendatuko ditu, lurralde egituraren haritik.
- Sektorearen lan ildoak eta esku hartzea zehaztuko ditu.
- Lan planen eta esku hartze sindikalaren garapena ebaluatuko du, urtez urte.

(98) **Osaketa**

- Sektoreko Nazio Komitea.
- Sektoreetako Eskualde Komiteak eta eskualde bakoitzeko afiliazioaren araberako hainbat pertsona, 150 kide bildu arte.

### 2.3.4. Sektoreko Nazio Komitea

(99) **Eginkizunak**

- Sektoreko lan planak eta ekintza sindikala definituko ditu.
- Sektoreko edo azpisektoreko jarduera ebaluatuko du.
- Sektore horretatik Nazio Biltzar konfederalako kideak zeintzuk izango diren proposatuko dizkio Sektoreko Nazio Biltzarrari.

(100) **Osaketa**

- Sektoreko exekutiboa.
- Sektoreko eskualde arduradunak

(101) Administrazioen eta Osasun Arloaren kasuan, nazio egituraren sektore horretako lege aholkularitzaren arduradunak egongo dira.

### 2.3.5. Sektoreko Komite Exekutiboa

(102) Sektore bakoitzeko Nazio Komiteak sektoreko Komite Exekutibo bat izango du eta honen osaketa zehaztuko du.

(103) **Eginkizunak**

- Sektorearen ordezkariak eta sektorearen sindikatuen arteko eta nazioarteko harremanak.
- Sektorearen nazio egitura dinamizatuko du.
- Antolaketa, afiliazio eta hauteskunde sindikalez arduratuko da.
- Sektoreko egitura garatuko du, negozioak kolektiboak eta ekintza sindikala bideratuko ditu.
- Sektoreko jarduera sindikal eta sozio-ekonomikoa kontrolatu eta ebaluatuko du.

(104) Era berean, sektore bakoitzak, Nazio Komite konfederalarekin bat datorrela, bere sektorean berezko izaera izango duten azpisektoreak zehaztuko ditu. Azpisektore horiek definituta egon beharko dute 6. Biltzar Nagusia izan baino lehen, eta azpisektore modura ordezkatuta egongo dira Sektoreko Komite Exekutiboan.

### 2.3.6. Sektoreko Eskualde Komitea

(105) **Eginkizunak**

- Eskualdeko Idazkariari ekarpenak egin eta haren erabakiak garatuko ditu.
- Sektorearen ekintza sindikala bultzatuko ditu eskualdean.
- Sail sindikalak dinamizatuko ditu.
- Eskualdeko Kontseiluan parte hartuko du.
- Sindikatuaren hedapena landuko du.

(106) **Osaketa**

1.- **Metalgintza**

- Metalgintzako eskualdeko Arduraduna
- Eskualdeko sail sindikaleko ordezkariak

2.- **Eraikuntza, Kimikak eta halakoak**

- Eraikuntzako eskualdeko arduraduna
- Kimiketako eskualdeko arduraduna

“

”

- Papergintza eta arte grafikoetako eskualdeko arduraduna
- Sektoreko sail sindikaletako arduradunak

### 3.- Irakaskuntza

- Sektoreko eskualdeko arduraduna
- Irakaskuntza publikoko eskualdeko arduraduna
- Irakaskuntza pribatuko eskualdeko arduraduna
- Ikastoletako eskualdeko arduraduna
- Unibertsitateko arduraduna hiriburuetan
- Irakaskuntza zerbitzuetako arduraduna hiriburuetan

### 4.- Administrazioak- Osasun Arloa

- Sektoreko eskualdeko arduraduna
- Foru eta udal administrazioetako arduraduna
- Jaurlaritzako administrazioeko arduraduna hiriburuetan
- Estatuko administrazioeko arduraduna hiriburuetan
- Enpresa publikoetako arduraduna hiriburuetan
- Osasun publikoko eskualdeko arduraduna
- Osasun pribatuko eskualdeko arduraduna
- Zerbitzu sozio-komunitarioetako eskualdeko arduraduna

### 5.- Zerbitzuak

- Sektoreko eskualdeko arduraduna
- Garbiketako arduraduna hiriburuetan
- Ostalaritzako arduraduna hiriburuetan
- Finantzetako arduraduna hiriburuetan
- Sail sindikaletako ordezkariak

### 6.- Garraioak eta Itsasoa

- Sektoreko eskualdeko arduraduna
- Garraioko eskualdeko arduraduna
- Trenbide garraioko eskualdeko arduraduna, zenbait kasutan
- Itsasoko eskualdeko arduraduna, zenbait kasutan
- Arrantzako eskualdeko arduraduna, zenbait kasutan
- Sail sindikaletako ordezkariak

#### 2.3.7. Azpisektore egitura

(107) Sektore bakoitzak koordinaketa eta funtzionamenduko egitura egonkorra zein azpisektorek eduki behar duen baloratuko du, beti kontuan izanik ezin dugula jarduera nukleo txikitant atomizatutako azpisektore mailako dinamikarik bultzatu.

(108) Azpisektoreko arduradun bakoitzak lan egin eta eredu sindikal borrokalari eta planifikatua garatzen utziko dion egituraketa egonkorrari helduko dio. Azpisektore bakoitzaren beren beregiko ezaugarriek definituko dute nukleo antolatu hori.

(109) Azpisektoreko arduraduna eskualde egituran sartuta egongo da

#### 2.3.8. Sektoreko edo Azpisektoreko delegatuen batzarra

(110) Sektoreko edo azpisektoreko delegatuen batzarra ez da sindikatuaren erakunde egonkorra izango, eta sindikatuak irizten dioneko unean-uneko beharrari edo abagune zehatz bati erantzuteko soilik erabiliko da. Nolanahi ere, sektoreko exekutibak dinamizatuko du.

## 2.4. Eredu sindikalaren zerbitzurako zuzendaritza

### 2.4.1. Biltzar Nagusia

(111) Sindikatuaren eztabaida eta erabaki gune gorena da.

#### (112) Eginkizunak:

- Estrategia orokorra eta esku hartzeko estrategia finkatuko ditu.
- Antolakuntzazko egitura onetsi edo aldaraziko ditu.
- Estatutuak berriztatu, aldatuko ditu.
- Nazio Komitea hautatuko du.
- Bermeen Batzordea hautatuko du.
- Finantzen Kontroleko Batzordea hautatuko du.

#### (113) Osaketa:

Biltzar Nagusian 500 pertsona egongo dira. Ordezkar horiek afiliatuen eskualde biltzarretan aukeratuko dira, eta eskualde bakoitzari dagokion ordezkariak afiliazioaren proportzionala izango da. Nazio Komiteko arduradun guztiak Biltzar Nagusiko kide izango dira, zuzenezuzenean.

### 2.4.2. Nazio Biltzarra


(114) Eztabaida eta erabaki gune gorena da, biltzar nagusi batetik besterako tartean.

#### (115) Eginkizunak:

- Biltzar Nagusien deialdiak egin eta araudiak onetsiko ditu.
- Biltzar Nagusiaren ebazpenak bete daitezen zainduko du.
- Biltzar Nagusian jorratu ez diren arren, duten garrantziarengatik gainerako zuzendaritza erakundeen gainetik dauden gaiak aztertuko ditu.
- Urteko esku hartzearen ildoak finkatu eta ildo horien ebaluazioan protagonismo nagusia hartuko du.
- Sindikatuaren esku hartzean estrategikoak eta zeharkakoak diren planak definitu eta ebaluatuko ditu: Aukera berdintasunen plana, hizkuntz normalkuntza...
- Kuotak aldatuko ditu.
- Zuzendaritza Erakundeetan sortzen diren hutsuneak beteko ditu, Nazio Komiteak proposamenari jarraituz.
- Nazioarteko erakundeekin bat egin ala ez erabakiko du.
- Bermeen Batzordearen arautegia onetsiko du.
